

Unibasq-en 2016-2019rako Plan Estrategikoa

AURKEZPENA

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen 79 artikulua Agentzia sortu zuen. Aurrerago, kalitate-bermerako agentzien Europako irizpide eta zuzendaritzetara egokitzeko, 2012ko uztailaren 4an, 13/2012 ekainaren 28ko Legea argitaratu zen, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, Agentziaren izena aldatu zuena. Azken lege honen helburu nagusia, Unibasq ENQA-n sartu eta EQAR-en erregistratzea zen, Euskadiko Goi-mailako hezkuntzan bere eginkizuna eta eskuduntza bultzatu eta indartzeko. Legearen 5.6 artikulua hurrengo agintzen du: *“agentziak lau urterako plan estrategikoa egingo du, eta plan horren arabera egin beharko da urteko kudeaketa-plana eta haren betetzeari buruzko azterketa”*. Agindu hau betetzeko, Agentziak bere Plan Estrategikoa onartu zuen 2013-2016 aldirako, ENQA-n sartu eta EQAR-en erregistratzeko funtsezko helburuarekin.

Nahiz eta aipatutako Plan Estrategikoaren aldia ez den bete, aurreko helburuaren lorpenak, Agentzia lehenbailehen garatu behar dituen potentzialtasun handiagoko testuinguru batean kokatzen du. Honek aurreko Plana arrakastatsuekin amaitutzat ematea gomendatzen du eta Agentziaren egoera berri eta indartuak ekarritako erronka eta aukera berriei era berritzaile eta bermeez ekin ahal izateko Plan berri bat lantzea. Berrikuntzaren emaitzak ebaluazio-prozesuen hobekuntzan eta sinplifikazioan, unibertsitate politikako erabakiak hartzen dituzten erakundeei emandako aholkuen sustapenean eta euskal unibertsitateetako eta agentziaren nazioarteko proiektio sozial handiago batean islatu behar dira.

Plan Estrategiko hau (2016-2019) agentziak aurreko plana betetzean lortutako esperientzia kontutan harturik egin da, parte-hartze desberdinekin eta Agentziako pertsonalak eta beste kanpoko eragile batzuk antzeman dituzten ahulezien, mehatxuen, indarren eta aukeren analisiaren ondorioz.

MISIOA

Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia- zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat da, eta bere helburua euskal unibertsitate sistemaren hobekuntzan eta berrikuntzan laguntzea da, nazioarteko kalitate estandarrak beteaz eta gizarteak goi mailako ikasketetan duen interesari erantzunez. Horretarako unibertsitate sistema osatzen duten erakundeez gain, hauen titulazioak eta irakasleak ere ebaluatu, aholkua eman eta egiaztatzen ditu, era objektibo eta independente batean. Europako Goi-mailako Hezkuntzaren esparruaren kalitate irizpideak eta jarraibideak betetzeak bere jarduera bermatzen du, ENQA-ko kidea izanik eta EQAR-en erregistratuta egonda. Honek beste edozein unibertsitate sisteman bere jarduera garatu ahal izatea eta gainontzeko europar sistemen onarpena ahalbidetzen du.

IKUSPEGIA

Unibasq-ek goi hezkuntzako erakundeen, unibertsitate komunitatearen eta gizartearen onarpena lortu nahi du, euskal unibertsitate sistemaren kalitatea hobetzen laguntzen duen eragile gisa, baita bere nazioartekotzean eta gizarte proiektzioan ere.

Euskal unibertsitateen, interes-taldeen edo sistemako erabiltzaileen, unibertsitateko politika erabakitzen duten erakunde eta unibertsitateko emaitzez sustatzen diren kanpoko eragileen arteko solaskide izan nahi du.

Halaber, unibertsitateen kalitaterako agentzi aholkulari eta aseguratzaile bezala bere burua ezagutzera eman nahi du nazioarte mailan, euskal unibertsitateetarako interes handieneko herrietan, Europako eta Latinoamerikan batez ere, bere nazioartekotzea indartzeko asmoz.

BALIOAK

Independentzia bere eginkizunen konplimenduan.

Erantzukizuna, profesionaltasuna eta pertsonen etika.

Baliabideak optimizatzen duen kudeaketa berritzaile baten bitartez efikazia eta eraginkortasuna.

Ebaluazio prozesuen garapenean objektibitatea eta zintzotasuna.

Gizartearen aurrean kontu-ematea eta gardentasuna.

Etengabeko hobekuntza eta bokazio zerbitzua.

Autonomiari eta unibertsitateen berezitasunari errespetua.

Amankomuneko interesak dituzten goi mailako erakundeekin, administrazioarekin eta nazio mailako zein nazioarteko beste agentzia eta erakundeekin lankidetzaren sustapena.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

1. ARDATZA. ZERBITZUAK: AHOLKULARITZA ETA EBALUAZIOA

1.1 helburua. Ebaluazio-prozedurak hobetzea, eta, horretarako, ebaluazio bat eskatzen duten erakunde edo pertsoneri eskatutako txostenen eta dokumentazioaren edukiak sinplifikatzea eta tamaina txikiagotzea.

1.2 helburua. Nazioartean errekonozituta dauden eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen espezifikotasunetara egokituta dauden adierazleen sistema labur baina esanguratsu bat finkatzea, eta haren erabilera eta emaitzen zabalkunde publikoa sustatzea.

1.3 helburua. Unibertsitateek eta/edo Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Unibertsitate Sistemako titulazioen maparen diseinuan eta hobekuntzan aholkatzea.

1.4 helburua. Irakasleen karrera akademikoa hobeto zehazten eta ebaluatzen laguntzea, nazioarteko parametroak kontuan hartuta.

1.5 helburua. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen kalitatearen egiaztapena eta unibertsitate-komunitate osoa Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari inplikatzeko eta interesatuta dauden agenteek parte hartzeko aukera sustatzea.

2. ARDATZA. GIZARTE-PROIEKZIOA: ERAKUNDEEKIKO, BESTE KALITATE-AGENTZIA BATZUEKIKO ETA GIZARTE-AGENTEEKIKO KOMUNIKAZIOA ETA LANKIDETZA

2.1 helburua. Gizartean Agentziaren jarduerak eta Agentziak Euskal Unibertsitate Sistemaren hobekuntzan betetzen duen zeregina zabaltzea.

2.2 helburua. Euskal ingurune sozioekonomikoko agenteekiko lankidetzaren areagotzea, erakundeekin zein Euskal Unibertsitate Sistemako titulazioen inguruko aholkularitza- eta ebaluazio-prozesuetan parte har dezaten.

2.3 helburua. Ikasleek Agentziaren ebaluazio-prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera sustatzea, goi-mailako hezkuntzaren hobekuntzari buruz duten iritzia txertatzeko.

2.4 helburua. Unibasq-ek unibertsitateen kalitatearekin zerikusia duten erakunde eta sareetan (REACU-n bereziki) duen presentzia areagotzea.

3. ARDATZA. AGENTZIAREN NAZIOARTEKOTZEA, EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMARI LAGUNTZEKO

3.1 helburua. Beste agentzia edo unibertsitate batzuekin nazioarteko proiektuak garatzea (ebaluazio-metodologiei buruzkoak bereziki).

3.2 helburua. Unibasq-ek unibertsitateen kalitatearekin zerikusia duten nazioarteko erakunde eta sareetan duen presentzia areagotzea (ENQA eta EQAR erakundeetan bereziki).

3.3 helburua. Unibasq-en nazioarteko aholkularitza- eta ebaluazio-jarduera sustatzea (Europar eta Latinoamerikan bereziki).

3.4 helburua. Euskal unibertsitateen eta Europako eta Latinoamerikako unibertsitateen arteko harremanak erraztea ebaluazio-agentzien arteko lankidetzaren bitartez.

3.5 helburua. Nazioartean errekonozituta dauden adierazleen argitalpen sinplea eta eraginkorra sustatzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzea eta nabarmentzeko aukera errazteko.

4. ARDATZA. BARNE-ANTOLAMENDUA: ZUZENDARITZA, PLANGINTZA, GIZA BALIABIDEAK

4.1 helburua. Prozesuen araberrako kudeaketa indartzea, eta, horretarako, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) egokitzea, sinplifikatzea eta erabakien eraginkortasunera, plantillaren optimizaziora eta Unibasq-eko erabiltzaileen premietara bideratzea.

4.2 helburua. Erakundearen egitura eta funtzionamendua hobetzea eta langileen motibazioa, konpromiso etikoa eta barne-komunikazioa areagotzea, Agentziak ENQA erakundeetan sartu eta EQAR erakundeetan erregistratu ondoren dituen erronka berriei aurre egiteko.

4.3 helburua. Agentziaren jardueraren emaitzen kontua eta euskal gizartearen eta haren gobernuaren aurrean egin beharreko aurkezpena hobetzea.

HELBURU ESTRATEGIKOEI LOTUTAKO EKINTZAK

H 1.1	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ebaluazio-protokoloak sinplifikatzea, eskatu beharreko informazioari zein haren tamainari dagokionez. 2. Izapidetze elektronikoan aurrera egitea ebaluazio-prozedura guztietan.
H 1.2	<ol style="list-style-type: none"> 3. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea. 4. Adierazle horien emaitzak unibertsitate-jardueraren Behatokian argitaratzea. 5. Eusko Jaurlaritzari eta unibertsitateei unibertsitate-planen inguruko aholkularitza eskaintzea.
H 1.3	<ol style="list-style-type: none"> 6. Gobernua eta unibertsitateak titulazioen mapari lotutako gaietan aholkatzea eta haiekin lankidetzan jardutea, diseinuari zein ezarpenari dagokionez.
H 1.4	<ol style="list-style-type: none"> 7. DOCENTIA programa gure inguruneko premietara egokitzea, baina, aldi berean, irakaskuntza-jarduera neurtzeko nazioarteko estandarrak kontuan hartzea.
H 1.5	<ol style="list-style-type: none"> 8. AUDIT programa edo baliokidea bultzatzea, unibertsitate-erakundeen inplikazioa areagotzea eta interes-talde guztiak barnean hartzeko aukera sustatzea.
H 2.1	<ol style="list-style-type: none"> 9. Interes-talde nagusien espektatibetara eta programen izaerara egokituko den komunikazio-protokolo bat zehaztu eta ezartzea. 10. Unibertsitateko berrikuntzaren saria.
H 2.2	<ol style="list-style-type: none"> 11. Gizarte-agenteeekin (enpresa- eta kultura-elkarteekin, profesionalen elkargoekin eta abar) topaketak egitea eta hitzarmenak sinatzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren inguruko iradokizunak biltzeko eta titulazio eta erakundeen ebaluazio-paneletan haien laguntza izateko. 12. Euskalit-ekiko lankidetzaren areagotzea.
H 2.3	<ol style="list-style-type: none"> 13. Unibasq-eko Ikasleen Aholku Batzordea eratzea. 14. Ikasleak unibertsitateen kalitatean eta ebaluazioan prestatzeko programa bat diseinatu eta aplikatzea.
H 2.4	<ol style="list-style-type: none"> 15. Unibertsitateen kalitateari buruzko Estatuko bilera eta foroetan (REACU-n bereziki) aktiboki parte hartzea.

H 3.1	16. Atzerriko unibertsitate edo agentziekin baterako jardueretan parte hartzea.
H 3.2	17. Unibertsitateen kalitateari buruzko nazioarteko bilera eta foroetan aktiboki parte hartzea.
H 3.3	18. Aliatuak bilatzea, Unibasq-ek beste herrialde batzuetan ebaluazio-jarduerak egiten hasi ahal izan dadin.
H 3.4	19. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin lankidetzan diharduten erakundeak eta tituluak egiaztatzen dituzten agentziekin harremanak ezartzea eta lankidetzaz-hitzarmenak egitea.
H 3.5	20. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea. 21. Adierazle horien emaitzak argitaratzea.
H 4.1	22. KBBS-a berrikusi eta sinplifikatzea.
H 4.2	23. Koordinazio-bilerak aldizka eta parte-hartzea eta inklusioa bilatuko duen formatu dinamiko batekin egitea. 24. Barne-komunikazioko prozedura berrikusi eta hobetzea. 25. Plantilla Agentziaren errealitate berrira egokitzea. 26. Urteko prestakuntza-plan bat diseinatu eta aplikatzea.
H 4.3	27. Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordea eratzea, Programa Kontratuaren 7. puntuan ezarritakoaren arabera. 28. Webgunea eguneratzea, unibertsitate-jardueraren Behatokia barnean hartuta. 29. Agentziaren jardueraren aurkezpen publikoak.

JARRAIPEN-ADIERAZLEAK ETA HELBURUAK

		2016	2017	2018	2019
H.1.1	Egokitutako / berrikusitako programen %	%25	%50	%75	%100
H.1.2	Adierazleei buruzko azterlana	Hasierako azterketa / diagnostikoa	EUS-arekin eta EJ-rekin adostua	Jarraipena	Jarraipena
H.1.2	Unibertsitate-jardueraren Behatokia	Diseinua	Abian jartzea	Jarraipena	Jarraipena
H.1.4	DOCENTIA programan egiaztatutako irakasleen %	%10	%20	%35	%50
H.1.4	DOCENTIA programan egiaztatutako zentrozen kopurua	2	7	12	17
H.1.5	Erakundeen egiaztapena duten zentrozen kopurua	8	15	20	25
H.2.1	Kalitatearen inguruko ekitaldien kopurua	1	2	2	2
H.2.1	Unibertsitateko berrikuntzaren saria	Diseinua	Ezarpena	Mantentzea	Mantentzea
H.2.2	Topaketen eta hitzarmenen kopurua	1	2	3	3
H.2.2	Euskalit-ekin batera egindako jardunak	1	1	1	1
H.2.3	Ikasleen Aholku Batzordearen bileren kopurua	3	3	3	3
H.2.3	Prestakuntzan parte hartu duten ikasleen kopurua	50	100	100	100

H.2.3	Ikasleak prestatzeko ekintzen kopurua	2	2	2	2
H.3.1	Nazioarteko erakundeekin egindako ekintzen kopurua	1	2	3	4
H.3.2	Nazioarteko bilera eta foroen kopurua	2	3	4	5
H.3.3	Nazioarteko ebaluazioen kopurua	0	1	2	3
H.3.5	Nazioarteko azterlanen kopurua	0	1	1	1
H.4.1	Kalitate-ziurtagiria (EFQM – kudeaketa aurreratua)	KBBS-a egokitzea	Ziurtagiria lortzea	Mantentzea	Mantentzea
H.4.2	Prestakuntza-jardueren kopurua	2	3	4	5
H.4.3	Webgunearen eguneratzea	Diseinu berria	Ezarpena	Eguneratzea	Eguneratzea
H.4.3	Agerpen publikoak	1	1	1	1